

PRIBATUTASUN POLITIKA

1.1. Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legea Garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzeko, webgunean dagoen edozein inprimaki betetzeak edo gure postontzietako edozeinetara mezu elektronikoa bat bidaltzeak pribatutasun politika hau onartzea dakarrela jakinarazten dizugu, bai eta ematen dizkiguzun datu pertsonalak tratatzeko Altxorrari baimena ematea ere, hemen adierazten den moduan eta baldintzetan.

1.2. Erabiltzailearen datuak Altxorraren jabetzako fitxategi batean sartuko dira; fitxategia Datuak Babesteko Espainiako Agentzian deklaraturata dago 2070810525 inskripzio kodearekin.

1.3. Erabiltzaileak Altxorrari baimena ematen dio bere datuak fitxategi horretan sartzeko, webgunearen bitartez eskainitako finantza eragiketak burutzeko helburuarekin eta, zehazki, baloreak erosi, eskualdatu eta saltzeko, Altxorrak eskaintzen dituen produktu eta/edo zerbitzuei dagokienez, hala nola, esate baterako, Erabiltzaileak egiten dituen eragiketak ikusteko.

1.4. Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeke eta tratatzeari uko egiteko eskubideak edozein unetan egikaritu ditzake Erabiltzaileak, eskaera idatzia helbide honetara bidalita: Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusia (Publizitate Saila), Paseo del Prado 6, 28014, Madril, nortasun agiri edo pasaportearen fotokopia edo identifikatzeko agiri baliodun batena erantsita, eta eskaria konkretua azalduta, jakinarazpenetarako helbidea, eguna eta zure izenpea, eta eskatzen duzunaren egiaztagiriak, behar izanez gero.

1.5. Datuak babestearen arloan indarrean dagoen legediaren arabera, Altxorrak segurtasun maila egokiak hartu ditu Erabiltzaileak emandako datuak babesteko, eta, gainera, datuok galtzea, txarto erabiltzea, eraldatzea, baimenik gabe ikustea eta ateratzea galarazteko eskueran dituen baliabide eta neurri guztiak instalatu ditu.

1.6. Datuak titularrak edo honen baimena duenak sartu dituela eta zuzenak eta zehatzak direla jotzen du Altxorrak.

1.7. Erabiltzaileari dagokio bere datuak eguneratzea. Altxorra ez da izango okerren errudun, Erabiltzaileak aldaketen berri ematen ez badu (adibidez, helbide elektronikoa aldatzea).

1.8. Webgunea ikuste hutsagatik Erabiltzaileak ez du informazio pertsonalik ematen eta ez dago ematera behartuta.

1.9. Altxorrak hitz ematen du ematen zaion informazioa erreserba eta isilperik handienez gordeko duela eta esandako